

MATEMATIKA 2. GAIA: ERREPASO ARIKETAK

- Idatzi 3ren bost multiplo, guztiak ere bikoitiak, eta 7ren bost multiplo, guztiak bakoitiak.

3=

7=

Kalkulatu zenbaki hauen zatitzaileak, eta esan zein diren zenbaki lehenak, eta zein, konposatuak.

32=

17=

Zein da zenbaki lehena?

Eta zein konposatua?

Kalkulatu.

• m.k.t. (6 eta 7)

• m.k.t. (15 eta 9)

• z.k.h. (24 eta 21)

• z.k.h. (16 eta 28)

Aztertu zenbakiak eta erantzun.

4 12 21 30 36 40 41 45 50

• Zer zenbaki dira 2z eta 3z zatigarriak?

• Eta 2z, 3z eta 9z?

• Zer zenbaki dira 3z eta 5ez zatigarriak?

• Eta 3z, 5ez eta 10ez?

Elenek 36 sagar eta 24 udare ditu. Poltsatan sartu nahi ditu, poltsa bakoitzean fruitu mota bera eta guztietan ale kopuru berbera dagoela. Ahalik poltsa gutxien bete nahi ditu. Zenbat poltsa egingo ditu?